



ANDOAINGO UDALA



Euskal Meteorologia agentziek datozen egunetarako egiten dituzten aurreikuspenak tarteko, Andoaingo Udalak Elurte Plana martxan jarri zuen asteazkenean. Hori dela eta, Meteorologia agentziek bidalitako informazio eguneratua jarraian.

Hona hemen datozen orduetarako iragarpenak:

Gaur Ostirala, hilak 1:

- **ALERTA LARANJA** elurragatik barnealdean 00etatik 24etara

Bihar Larunbata, hilak 2:

- **ALERTA LARANJA** elurragatik barnealdean 00etatik 15etara

- **Abisu Horia** elurragatik barnealdean 15etatik 24etara

Etzi Igandea, hilak 3:

- **Abisu Horia** muturreko tenperatura baxuak/ izotzagatik barnealdean eta Gipuzkoako kostaldean 00etatik 10etara.

Horiek horrela, Andoaingo Udalak gogorarazi nahi die herriko komertziantek zein bizilagunei beraien establezimendu eta atari aurreko espaloia garbitu ahal izateko gatza izango dutela eskuragarri Udaltzaingoaren bulego nagusian (Extremadura kalean).

Ustekabe edo oharrik izanez gero, honako telefono hauek jarri ditu Udalak eskuragarri:

-Udala: 943 30 08 30

-Udaltzaingoa: 092 / 900 300 819

Maila horia: arrisku neurritsua, orokorrean biztanleentzat ez da arazo meteorologikorik, baina bai aktibitate zehatz batzuentzat.

Maila laranja: meteorologi arazo nabarmena dago

Maila gorria: arazo meteorologikoa sekulakoa da. Aparteko intentsitatea duten fenomeno meteorologiko ez ohizkoak.

Andoain, 2017ko abenduaren 1n

